

Prentsa-oharra

Laserra fabrikazio aurreratuaren bektore gisa

- ▶ *IK4-TEKNIKERek Laser for Manufacturing Lab aurkeztuko du Makina-erremintaren Biurteko Azokaren hurrengo edizioan; hau da, laser-teknologian oinarritutako ezarpenak integratzearen alde egin duen apustua*
- ▶ *Laser for Manufacturing Lab bitartekoak laser-teknologiari eta horren ezarpenari buruzko 360º-ko ikuspegia ematen du*

(Eibar, 2018ko maiatzaren 18a).- Teknologia garatzeko estrategikoak diren sektoreekin (besteak beste, biomedikuntzarekin, energia berriztagarriekin edo automobilgintzarekin) paraleloan ari da aurrera egiten fabrikazio aurreratua. Sektore horiek ere balio erantsi handiko osagaiak eskatzen dituzte; zehaztasun handiko prestazioak eskaintzeko gai diren eta segurtasun-estandar zorrotzak betetzen dituzten osagaiak, alegia.

Eskakizun horiei erantzute aldera, laser-teknologietan oinarritzen den irtenbide orokor bat garatu du IK4-TEKNIKERek, non fabrikazio aurreratuari aplikatzen zaizkion teknologia horiek, ikuspegi integral batetik: fabrikazio-prozesuak, ekipoen eta osagaien diseinua eta fabrikazioa, fabrikazio gehigarria, ikuskapena eta neurketa.

“Laser for Manufacturing Lab” deiturikoarekin amaitu da ekimena; teknologia horren ezagutza espezializatu eta osoan oinarritzen diren irtenbide osoak ematera zuzendutako eskaintzarekin, hain zuzen ere.

IK4-TEKNIKERek Laser for Manufacturing Lab aurkeztuko du Makina-erremintaren Biurteko Azokaren (BIEMH) hurrengo edizioan, maiatzaren 28tik ekainaren 1era bitarte, 1. pabilioian, C22 standean kokatutako hainbat erakusleren bitartez.

Industriara gehiago eta hobeto iristeko bitartekoa da “Laser for Manufacturing Lab”, bai eta ekoizpen aurreratuaren premia zehatzak laser-teknologiak ematen dituen aukeren bidez konpontzeko bitartekoa izan ere, laser-teknologiari eta horren ezarpenari buruzko 360º-ko ikuspegia ematen baitu.

Azken batean, IK4-TEKNIKERek eremu horretan garatu dituen irtenbide guztien eskaintza bateratu eta koordinatu da. Bada, honela sailka daitezke irtenbide horiek guztiak:

MATERIALEN PROZESAKETA				
MAKRO				
TEKNIKA APLIKAZIOAK	MOZKETA GASAREKIN LAGUNDUTAKO MOZKETA URRUNEKOA Osagaien bizar-kentzea Zahatzetasun mikro-mozketa 3D mozketa	METALEN SOLDADURA EROAPENA "KEYHOLE" URRUNEKOA Aleazio berberak Material ezberdinak	TENPLAKETA / IRAOKETA OPTIKA FINKOA IZPI OSILAKORRA Gogortzea Iraoketa Biguntzea Mekanizazio- eta konformazio-sistemei laguntza	LASER CLADDING-A HAUTS BIDEZKOA HARI BIDEZKOA Gainazal sendotzea Moldeak berreskuratzea eta konpontzea Estaldurak
	GARBIKETA / DESUGERKETA ERREKUNTZA ABLAZIOA TALKA-UHINAK Margo, estaldura eta abarren desugerketa Herdoil, koipe, substantzia kutsatzaile eta abarren garbiketa	POLIMEROEN SOLDADURA IA ALDI BEREKOA (ESKANERRA) INGERADA/SILUETA ALDI BEREKOA Termoplastiko berberak Termoplastiko ezberdinak	MATERIAL EZBERDINEN LOTURAK IA ALDI BEREKOA (ESKANERRA) INGERADA/SILUETA ALDI BEREKOA Termoplastikoa-metalak Metal ezberdinak	
MIKRO				
TEKNIKA APLIKAZIOAK	TESTURATZEA IA ALDI BEREKOA (ESKANERRA) Propietate tribologikoen hobekuntza Errepublikatzea Gainazal superhidrofoboak	MIKRO-MEKANIZAZIOA IA ALDI BEREKOA (ESKANERRA) Mikromoldeak Tresnen profilazioa Txirbilgailuak	MIKRO-ZULAKETA SINGLE PULSE PERCUSSION TREPANNING HELICAL Iragazkiak Balbulak	MARKAKETA IA ALDI BEREKOA (ESKANERRA) Dekorazioa Irizgarritasuna
GAILUAK / EKIPAMENDUA				
SIMULAZIOA Simulazio optikoa Simulazio termomekanikoa (FEM)	OSAGAI OPTOMEKANIKOEN DISEÑUA ETA FABRIKAZIOA Izpi eraldaketa Pitak Eustoinak Buruak	LASERREN INTEGRATZEA SOLUZIO OSOTAN	PRODUKTIBITATE HANDIKO SOLUZIO OSOAK	MONITORIZAZIO-SISTEMAK ETA PROZESU KONTROLA
FABRIKAZIO GEHIGARRIA				
PROZESUAK HAUTS BIDEZKO LMD-A HARI BIDEZKO LMD-A	HAUTS EDO HARI BIDEZKO LMD-RAKO LASER PITAK/BURUAK LMD-AN DINARRITURIKO SOLUZIO OSOAK EGITURA HANDIEN FABRIKAZIO GEHIGARRIARAKO LMD ETA BESTELAKO FABRIKAZIO-PROZESUEN HIBRIDATZEA			
IKUSKAPENA ETA NEURKETA				
ESKALA LUZEKO TEKNOLOGIAK (TRACKER, INTERFEROMETRIA, TRACER)	ESKALA LABURREKO TEKNOLOGIAK (TRIANGULAZIOA, ARGI EGITURATUA, HEGALDI-DENBORA)	PROZESUAK MONITORIZATZEKO ETA KONTROLATZEKO LASER-SISTEMAK		
BESTE BATZUK				
AHOLKULARITZA LASER-SISTEMEN EZARPEN INDUSTRIALA LASER-IZPIEN DIAGNOSTIKOA Karakterizazioa Segurtasuna PROZESU INDUSTRIALEN DOIKUNTZA	PRESTAKUNTZA "LASERRAREN APLIKAZIO INDUSTRIALAK" IKASTAROA ESKARIAREN ARABERAKO IKASTARO ESPEZIFIKOAK "HANDS ON" TRAINING-A, IK4-TEKNIKER-EN EDO BEZEROAREN INSTALAZIOAN			

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////